

**European Network of Ombudspersons for Children
(Haurren Defentsa Erakundeen Europako Sarea)**

Adierazpen instituzionala: “*Haur eta Nerabeen Eskubideen aldeko Erakunde Independentek indartzea eta haien eginkizun paregabea aitortzea*”

* ENOCek 2023ko irailaren 21ean egindako 27. batzar orokorrean onartua, Bruselan

1

ATARIKOA

ENOCen 2023ko adierazpen instituzional honen helburua da Haur eta Nerabeen Eskubideen aldeko Erakunde Independenteen (ICRI, ingelesezko siglengatik: *Independent Children’s Rights Institutions*) oinarriko printzipioak¹ azpimarratzea; hala nola, independentzia, autonomia, ahal eta baliabide egokiak, irisgarritasuna, ikusgaitasuna eta parte-hartzea. Duten forma edo egitura edozein izanda ere², adierazpen honek aitortza egin nahi dio ICRIen eginkizun paregabeari, adingabe guztien eskubideak babestu eta sustatzeko mandatuan espezializatutako erakundeak diren heinean.

Azken urteotan, Europako ICRIek presio handia jasaten dute, gero eta gehiagok jasan ere, eta beren mandatua eta misioa arriskuan jarri dituzten erronkei egin behar izan diete aurre. Nahiz eta ENOCek orientazioa eta laguntza eman dizkien (44) kideei 26 urte hauetan, estatuei eta nazioarteko agintaritzei dagokie ICRIak babestu eta indartzea, haur eta nerabeen eskubideak betetzen direla zaindu behar baitute; are, haiek dira eskubideon zaindari nagusiak.

Haurrak eta nerabeak eskubideen titular autonomoak dira, eta, bat etorrira Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioarekin (HEK), estatuek eskubideok errespetatu, babestu eta asebate behar dituzte. Haien egoera espezifiko gorabehera, beste ezeren gaitetik, adingabeak dira, eta bizitzako alderdi guztietan babestu behar dira. Aitortu egin behar dugu garapen-egoera etengabean daudela eta eskubide-urraketak pairatzeko egoera zaurgarriagoan daudela: eskubide-urraketek oraingo egoerari nahiz epe luzerako perspektibei eragiten diete. Ondorioz, adingabeen interes gorenak izan behar du haurrei eta nerabeei eragiten dieten lege, politika eta erabaki guztien kezka nagusi eta gidari (HEK, 3. artikulua). Haurrek eta nerabeek helduak behar dituzte, beren ongizatea berma dadin eta beren eskubideak errespetatu daitezkeen. Askotan, ez zaizkie iritzirik entzuten, eta eskubideak babesteko zailtasun gehiago dauzkate. Gainera, baliteke haur eta nerabeen iritziek eta interesek zaintzaileenekin bat ez egitea, eta toki are zaurgarriagoan uzten ditu horrek.

¹ Pariseko printzipioak, Veneziako printzipioak, Haurren Eskubideen Batzordearen 2. ohar orokorra eta nazioarteko beste tresna egoki batzuk.

² Haurren Defendatzailtza, Haurrentzako Komisionatua, Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten barruko edo mandatu orokorreko defendatzailtza baten barruko Haurren Eskubideen Saila/Unitatea edo Haurren Eskubideen Laguntzailtza eta abar.

Herrialde gehienetan, haurrek eta nerabeek zailtasun latzak izaten dituzte kexa-mekanismo eraginkorrak eskuratzeko, eta horrek are gehiago mugatzen die beren premietara egokitutako baliabideak lortu eta, eskubideak urratzen dizkietenean, erreparazio azkarra jasotzeko aukera. Adingabeak dira zerbitzu publiko batzuen erabiltzaile nagusiak (hezkuntza, babesteko gizarte-zerbitzuak eta abar), baina, hain dute botere politiko mugatua, ezen, sarritan, erabakiak hartzeko prozesu publikoetatik kanpo geratzen baitira.

Kontraesan hori ikusita eta haurrek eta nerabeek egoera espezifikoak dutela aitortuz, ENOCek ICRIen ezinbesteko eginkizuna nabarmendu nahi du, haurren eskubideak babestu, sustatu eta ikuskatzeko lana baitaukate egotzita: estatuek (baita gobernuak ere) HEKren arabera dituzten betebeharrak betetzen dituztela bermatzen ahalegintzen dira ICRIak.

ICRIek irisgarriak izan behar dute adingabe guztientzat, eta modu proaktiboan informatu eta kontzientziatu behar dituzte haurrak eta nerabeak haien eskubideen inguruan. Ahalegina egin behar dute, bai haur guztiek beren ikuspegia adierazi ahal izan dezaten, bai haien iritziak kontuan har daitezten eta iritzion arabera jardun dadin. ICRIen independentzia funtsezko alderdia da beren lanean, bermatu egiten baitu haur eta nerabeen eskubideetan eta adingabeen interes gorenean oinarritutako ikuspegia gailentzea. ICRIek independenteak izan behar dute gobernuakiko, eta beren lanaren alderdi guztiak zehazteko aukera izan behar dute, baliabideen esleipena, estrategia politiko eta eragileak eta bestelako kontuak barne hartuta. Ikusgaitasuna, irisgarritasuna eta baliabideen hornidura egokia ezinbesteko elementuak dira, ICRIak eraginkorrak izatea eta haurrengana nahiz haurren defendatzaileengana hurbiltzea bermatzen dutelako. ICRIek, indartzen baditugu, modu eraginkorrean babestu ahalko dituzte haurren eskubideak, eta areagotu egingo da haurrek eta nerabeek adierazten dituzten kezkek aitortu eta lehenesteko aukera. ICRIen funtzionamenduan, elementu nagusietako bat da adingabeekin elkarlanean aritzea, eta, egotzita duten lanean, ezinbestekoa da adingabeen parte-hartze esanguratsua sustatzea.

Adierazpen instituzional honek oinarri ditu *“Haurren Eskubideen aldeko Erakunde Independentek: haur eta nerabeen eskubideen babesean eta sustapenean dauden estrategiak, ikuspegiak eta erronkak”* azterlana eta ENOCeko kideei egindako kontsultak. Halaber, Gazte Aholkularien Europako Sareak (ENYA – European Network of Young Advisors) emandako gomendioekin elikatu eta aberastu dugu adierazpena. Dokumentu honek, bada, dei egin nahi die estatuei eta nazioarteko aktoreei, ICRIak aitortu eta babestu ditzaten, eta, era berean, ENOCeko kideek partekatzen duten konpromisoa azpimarratu nahi du: ENOCeko kideek, izan dezaketen testuingurua edozein izanik ere, haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea babesten eta sustatzen laguntzeko konpromisoa dute.

Azpimarratu egin nahi dugu estatuek behar diren neurri guztiak hartu behar dituztela Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa aplikatzeko; hala nola, Haur eta Nerabeen Eskubideen aldeko Erakunde Independentek eraginkorrak sortuta;

Azpimarratu egin nahi dugu estatuek ICRI batera iristeko aukera bermatu behar dietela adingabeei eta haien zaintzaileei;

Aitortu egin nahi dugu ICRIek, askotariko egiturak eta formak izanda ere, haur eta nerabeen eskubideak babestu eta sustatzeko eskumen-sorta bat dutenez, ezinbesteko eginkizuna

betetzen dutela Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa nazio- edo eskualde-mailan aplikatzeko eta agintaritzei erantzukizunak eskatzeko;

Baieztatu egin nahi dugu ENOC ahots indartsua dela ICRIletarako, erakunde independente, irisgarri, ikusgai, konprometitu eta baliabide egokiz hornituak babesteko konpromisoa baitu;

Lagundu egin nahi dugu HEKn jasotzen diren xedapen guztiak gauzatzen; bereziki, eskubide eta printzipio orokor hauei dagokienez: diskriminaziorik ez izateko eskubidea (2. artikulua), adingabeek beren interes gorena lehenets dadin duten eskubidea (3. artikulua), bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea (6. artikulua) eta haurrek eta nerabeek entzun ditzaten eta beren iritzia kontuan har daitezten duten eskubidea (12. artikulua).

Guk, ENOCeko erakunde kideok, nazioetako, eskualdeetako, nazioarteko eta Europako antolakundeei, estatuei eta agintariei eskatzen diegu egotzita dauzkaten betebeharrak bete ditzatela, honako gomendio hauei jarraikiz:

ENOCek honako hau eskatzen die EBri, Europako Kontseiluari, Haurren Eskubideen aldeko Nazio Batuen Batzordeari eta Europako nahiz nazioarteko beste erakunde batzuei:

- Haurren Eskubideen aldeko Erakunde Independentek sor daitezten sustatzea, erakundeok Pariseko printzipioetan, Veneziako printzipioetan eta Haurren Eskubideen Batzordearen 2. ohar orokorrean ezarritako gutxieneko arauak betetzen dituztela bermatzearekin batera;
- ICRIak dauzkaten herrialdeetan eta, bereziki, Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten edo mandatu orokorreko defendatzailetza baten zati diren ICRIak dauzkaten herrialdeetan, ikuskatzea estatuko agintariek haurrentzako baliabide egoki eta espezifikoak bermatzen dituztela, ICRIen ikusgaitasuna eta ICRIek beren mandatua modu eraginkorrean burutzeko ahalmena areagotze aldera;
- Aldizka ebaluatzea estatuek benetan ematen ote dituzten ICRIen mandatua betetzea bermatzeko behar diren lege-oinarria eta eskumenak, baliabide tekniko eta finantzarioak, giza baliabideak eta bestelako baliabideak;
- Estatuei zuzendutako gomendio espezifikoak garatzea, honako hauen inguruan: ICRIek haurren eskubideei buruzko arauak ezartzen direla ziurtatzeko duten eginkizun giltzarria (ikuskapen independentea) eta ICRIen eginkizuna eta eraginkortasuna indartzeko premia eta bitartekoak;
- Haur eta nerabeen eskubideei jarraipen espezifikoa egiteko mekanismo bat garatzea, EBk haurren eskubideen inguruan duen estrategiaren esparruan;
- Haur eta nerabeen giza eskubideei eta eskubideei buruzko tratatuak gainbegiratzeko lanaren barruan, sistematikoki ematea ICRIen mandatua indartzeko gomendio espezifiko eta zehatzak (bereziki, Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten edo aginte orokorreko defendatzailetza baten zati

direnean) eta aldizkako ikuskapenean gomendioei jarraitzen zaiela bermatzea;

- Modu aktiboan konprometitzea ICRIekin, giza eskubideei eta hurrei buruzko tratatuen arabera sortutako erakundeak gainbegiratzeko prozesuan, arreta berezia jarrita ICRIen eginkizunari eta garrantziari eta ICRIei ikusgaitasuna, pisua eta tokia emanda, prozesu horretan beren aldetik esku hartzeko kuota bat esleitzearekin batera.

ENOCek honako hau eskatzen die estatuei, nazio- eta eskualde-mailako agintaritzei eta egokitzen diren gainerako agintaritzei guztiei:

- Nazioko edo eskualdeko legedian ICRI bat sortzea, haur eta nerabe guztien eskubideak benetan babesteko eta sustatzeko behar diren ahalak eta baliabideak izango dituen, bat etorrita HEKrekin;
- Dauden ICRIei edo Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten barruan edo mandatu orokorreko defendatzailetza baten barruan haur eta nerabeen eskubideak babesten dituen sailari edo unitateari baliabideak ematea eta erakunde horien independentzia eta prestigioa garatu eta sustatzea, autonomia bermatuz aurrekontuen, langileen, komunikazioaren eta estrategiaren arloetan;
- ICRIei baliabide egokiak bermatzea, beren mandatua eraginkortasunez bete dezaten; bereziki, erakundea Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten edo mandatu orokorreko defendatzailetza baten zati denean;
- Bermatzea karguaren titularra izendatzeko hautapen-prozesua gardena, independentea eta sendoa dela eta hurrek eta nerabeek prozesu horretan parte hartzen dutela; Ziurtatzea kargurako kontuan hartuko direla haur eta nerabeen eskubideei buruzko ezagutzak, eskarmentua eta lidergo-dohainak;
- Modu proaktiboan bilatzea eta azkar erantzutea ICRIek adingabeengan eta haien eskubideetan eragina duten lege- eta administrazio-kontuen eta bestelakoen inguruan ematen dituzten aholkuei, gomendioei eta orientazioei;
- Bat etorrita Haurren Eskubideen Batzordearen 2. ohar orokorrarekin, ICRIa edo Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten barruko edo mandatu orokorreko defendatzailetza baten barruko Haurren Eskubideen Saila/Unitatea edo Haurren Eskubideen Laguntzailetza babestea edozein eskumen-, egozpen- eta baliabide-murrizketatik; era berean, eskumenok, egozpenok nahiz baliabideok areagotzen direla bermatzea;
- Eskubideetan oinarritutako ikuspegia edukitzea hurrei eta nerabeei eragiten dieten erabaki publikoak hartzean eta legeak, politikak, aurrekontu-erabakiak, programak

eta zerbitzuak aplikatzean, bat etorrira ENOCek haurren eskubideen gaineko inpaktuaren ebaluazioari buruz egindako adierazpen instituzionalarekin (2020)³;

- Eskola-maila guztietako curriculumean haurren giza eskubideetan eta eskubideetan oinarritutako hezkuntza txertatzen dela bermatzea, eskubide-uraketetan erreparazio eraginkorra lortu eta eskatzeko moduari buruzko edukiak barne hartuta (baita erreparazioa ICRIetan nola eskatu azaltzen duten edukiak ere).

Guk, haurren defendatzailetzok eta komisariotzok, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Haur eta nerabeen ikuspegia babestea beti, diskriminatu gabe jardutea haien interes gorenaren alde eta haur eta nerabeei beren eskubideak baliatzen sustatzea, bat etorrira Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioarekin;
- Gure mandatuaren ahal guztiak baliatzeko neurriak hartzea, haur guztien eskubideak ahalik eta gehien zaindu, babestu eta sustatzekoak barne hartuta;
- Modu independentean jardutea, bat etorrira Pariseko printzipioetan, Veneziako printzipioetan eta Haurren Eskubideen Batzordearen 2. ohar orokorrean ezarritakoarekin, eta haur eta nerabeen eskubideak eskualde- edo nazio-mailan sustatzea;
- Giza Eskubideen Institutu Nazional zabalago baten barruan edo mandatu orokorreko defendatzailetza baten barruan Haurren Eskubideen Sailak/Unitateak edo Haurren Eskubideen Laguntzailetzak egotea bermatuko duten lege-xedapenak bultzatzea eta erakunde horiek, esku-hartze publikoen bidez, ikusgaiak eta aktiboak izateko ahala, tokia eta autonomia eduki ditzaten sustatzea;
- Neurri proaktibo, estrategiko eta sortzaileak hartzea gure mandatuaren alderdi guztiak betetzeko, barne hartuta, hala egokitzen denean, haur eta nerabeei egokitutako kexa-mekanismo eraginkorrak sortzeko eginkizuna, eskubide-uraketetan erreparazioa emateko.
- Erantzun, laguntza eta konponbide azkarrak ematea, kontuan hartuta adingabeek denbora desberdin hautematen dutela⁴, eta gure prozedurak edo prozesuak haien premia ebolutiboetara egokitzea;
- Kexei dagokienez, ikuspegi zorrotz eta justu bat eman edo bermatzea, adingabeengan zentratua eta eskubideetan oinarritua, eta, aldizka, ondorioen eta gomendioen berri ematea erabakiak hartzen dituztenei;

³ ENOCen 2020ko adierazpen instituzionala, haurren eskubideen gaineko inpaktuaren ebaluazioari buruzkoa (eskuragarri [hemen](#)). CRIARI buruzko informazio gehiago ENOC 2020 CRIA web-orrian (eskuragarri [hemen](#)).

⁴ Haurren Eskubideen Batzordea, 14. ohar orokorra (2013), 93. paragrafoa: "Haurrek eta helduek ez dute berdin hautematen denboraren iragatea. Asko atzeratzen diren edo denbora asko hartzen duten erabaki-prozesuek ondorio bereziki kaltegarriak dituzte haurren bilakaeran. Hortaz, komeni da haurrekin lotuta dauden edo haurrei eragiten dieten prozedurak edo prozesuak lehenestea eta ahalik eta lasterren amaitzea".

- Haur eta nerabeekin eta haien defentsan lan egiten duten profesionalei, boluntarioei eta pertsoneri prestakuntza eta garapena eskaintzea edo eskain diezazkieten sustatzea, haien lanean haurren eskubideak txerta eta zaindu ditzaten;
- Duten adinera moldatuta, haurren eskubideen inguruan sentsibilizatzea haurrak eta nerabeak (bereziki, talde zaurgarrietan daudenak), haien zaintzaileak eta haiekin edo haientzat lan egiten duen edozein heldu;
- ICRIen ikusgaitasuna eta irisgarritasuna areagotzea haur eta nerabeen artean (bereziki, talde zaurgarrietan daudenen artean), haien zaintzaileen artean eta haurrekin eta haien defentsan lan egiten duten profesionalen eta gizarte zibileko antolakundeen artean;
- Aldizka haur eta nerabeengana hurbiltzea eta ingurune eta eremu geografiko posible guztietan (hala nola, hezkuntza-zentroetan, egoitzetan, zentro komunitarioetan eta bestelakoetan) haiekin elkartu eta konprometitzea, modu esanguratsuan;
- ICRIak beren helburuaren arabera diseinatzea, adinerako egokiak diren eremu fisiko eta digitalekin;
- Haurrak eta nerabeak sistematikoki inplikatzeko erakundearen lanean, hainbat modutara (adibidez, parte hartzeko mekanismo esanguratsuen bidez: inkestak, eztabaida-taldeak, elkarrizketak, haurrentzako kontsulta-taulak eta abar), adingabeen esperientziak eta ikuspegiak oso kontuan har daitezten. Horrek barruan hartzen du erakundeak gauzatzen duen lana etorkizunean garatu, ebaluatu eta burutzean parte hartzea;
- Hala egokitzen denean, erakundearen eskumenen eta baliabideen inpaktuari eta irismenari buruzko autoebaluazio- edo ebaluazio-prozedura independenteak garatzea, erakundearen ahala erabat aprobetxatu ahal izan dadin;
- Haur eta nerabeen eskubideen gaineko inpaktuari buruzko ebaluazioak egin daitezten sustatzea, hurrei eta nerabeei eragiten dieten legeak, politikak, aurrekontu-erabakiak, programak eta zerbitzuak egin eta aplikatzean⁵;
- Bermatzea ICRIak jakintza-zentro erreferente, kualifikatu eta fidagarriak direla eta langile guztiek, aldizka, haur eta nerabeen eskubideei buruzko prestakuntza aurreratu eta sektoreartekoa jasotzen dutela. Halaber, izendatutako langileek haur eta nerabeen parte-hartzeari eta babesari buruzko prestakuntza berezia dutela ziurtatu beharko da.

⁵ Bat etorrita ENOCen 2020ko adierazpen instituzionalarekin, hots, haurren eskubideen gaineko inpaktuaren ebaluazioari buruzkoarekin.

- ICRIen estrategiek eta lehentasunek bat egitea adingabeek (baita inguruabar bereziki zaurgarrietan dauden adingabeek ere) egunerokotasunean eskubideak baliatzean izaten dituzten arazoekin;
- Haur eta nerabeen iritzia jasotzen dituzten txosten alternatiboak aurkeztea Hurren Eskubideen aldeko Nazio Batuen Batzordeari, estaturako aldizkako berrikuspenaren esparruan. Haur eta nerabeek Batzordeko ikuspuntu-trukeetan parte har dezaten erraztea.



ENOCek Europar Batasuneko Herritartasun, Berdintasun, Eskubide eta Balioen Programaren finantzaketa jaso du. Argitalpen honen edukiak ENOCen iritzia baino ez du jaso, eta erantzukizuna ENOCena baino ez da. Europako Batzordeak ez du inolako erantzukizunik onartuko hemen bildutako informazioaren erabilerengatik.